



Gizarte-zerbitzuen euskal eredua eraikitzeko aukera

(2010eko ekainaren 4ko prentsarako artikulua)

Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko pertsona batek laguntzak behar dituen egoerak ugaritu egin direnez, eta, horretaz gain, familia- eta komunitate-laguntzako egiturak erabat aldatu direnez, gizarte-zerbitzuak dira, zalantzarik gabe, gure herrialdean eta azken hamarkada honetan hazkunde handienak eta aldaketa esanguratsuenak izan dituen ongizate-sistemaren zatia. Hori gertatu da gizarte-zerbitzuen egitekoa pertsona batek modu autonomoan bizitzeko duen ahalmenaren eta pertsona hori familia- eta komunitate-arloan integratzearen artean dagoen harremanari erantzutea delako, hain zuzen ere. Hazkunde bizkor horrek eragiten du, askotan, gizarte-zerbitzuen iraunkortasuna mehatxu gisa azaltzea Euskadiko bizi-garapenean, nahiz politika- eta erakunde-arloko garapenean aktibo eta aukera gisa agertzen denean.

Gizarte-zerbitzuen eremuan Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du, eta, hortaz, autogobernurako erabateko ahalmena du ezarri nahi den gizarte-zerbitzuen eredua definitzeko. Gizarte-zerbitzuei buruzko gure legea garatzeko eta aplikatzeko prozesuan dugu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema ahalik eta hobekien eraikitzeko aukera eta erantzukizuna.

Beste sistema publiko batzuk ez bezala (esate baterako, osasun- eta hezkuntza-sistemak) gizarte-zerbitzuen sistema bereizten da sistema

horretan protagonismo handia dutelako Udalek, Foru Aldundiek eta Jaurlaritzak. Eta hori ez da arazotzat hartu behar, eskubideei hainbat esku-hartze eremutatik erantzuteko askotariko modutzat, modu pluraltzat eta aberatsagotzat baizik. Gizarte-zerbitzuak ezin izango dira garatu lankidetzarik gabe, nahiz eta baliabide ekonomikoak eduki.

Halaber, gizarte-zerbitzuen eremuaren ezaugarria ere bada eskubidea bermatzeko duen erantzukizun publikoa norberaren erantzukizunarekin eta familia-erantzukizunarekin uztartzearen alde egiten duen apustua erabiltzaileek, beste bitarteko batzuen artean, zerbitzuak finantzatzeko nolabaiteko partaidetza ekonomikoa (mugatua eta mailaz mailakoa) izanik. Ongizatearen beste eremu batzuetan bezalaxe, funtsezkoa da oreka bilatzea profesionalen mediku-aginduaren eta erabiltzaileak hautatzeko aukeraren artean. Halaber, deigarria da administrazio publikoen eta ekimen sozialeko erakundeen, ekonomia solidarioaren eta zerbitzuak emateari dagokionez gizarte-arloan ardura duen ekimen pribatuaren artean inbrikazio nabarmena aukeratzea; gainera, legean eta eguneroko bizitzan agertzen da aukeratze hori. Ekonomia berri bat zabaltzen ari da sistemaren kudeaketan.

Ezin zaio ongizate-egoerari eutsi enplegurik sortzen ez bada, eta gizarte-zerbitzuak garatzeko nahitaezkoa da berrikuntzaren eta ekonomia produktiboaren alorrean sektore estrategikotzat hartzea, eta ez gastu gisa soilik ikustea. Gizarte-zerbitzuen sektorea da, zalantzarik gabe, gure ekonomian enplegua sortzeko ahalmen handiena duena une honetan. Agenda bera dira enplegua sortzeko agenda eta gizarte-zerbitzuak garatzeko agenda. Agenda horren funtsezko ardatza pertsonak zaintzeko egiten diren hainbat lan azaleratzea, duintasun bihurtzea eta kualifikatzea da; izan ere, lan horiek,

askotan, segurtasunik gabeko baldintzetan egiten dira jasotzen dituztenei dagokienez eta egiten dituztenei dagokienez, aldiz, behin-behinekotasuneko baldintzetan. Hori da erronka konplexuenetako bat, eta malgutasuna nahiz sormena eskatzen die agente guztiei.

Bestalde, gizarte-zerbitzuei eman nahi diegun etxez etxeko ikuspegia eta ikuspegi komunitarioa guztiz bat dator Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saila egiten ari den planteamenduarekin. Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-politiken barruan, Lehendakariak iragarri duenez, osasun-arloko, etxebizitza-arloko eta gizarte-gaietako politiken arteko koordinazio-eredu berriaren definizioarekin zerikusia duenari emango zaio lehentasuna. Koordinazio-eredu horri esker, beren autonomia funtzionalean beren etxeetan, auzoetan eta herrietan mugak dituzten pertsonen bizi-kalitatearen hobekuntzak –erabatekoak eta orokorrak– lortuko dira.

Zalantzarik gabe, Foru Aldundiek funtsezko zeregina betetzen dute eta betetzen jarraituko dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari, eta, zehazki, eredu batean; hain zuzen ere, datozen urteetan Udalek (lehen mailako arretako prestazioak eta zerbitzuak horien eskuetan daude) eredu horretan duten partaidetzaren igoera erlatiboa sustatu behar duen ereduan. Era berean, herrialdearen benetako eredu batek eskatzen du erakundeak eta agenteak elkartzea Sistemaren eskaera komunen inguruan, Eusko Jaurlaritzari atxikita daudenen inguruan, alegia. Horregatik, pozten gara EUDEL Euskal Udalerrien Elkarteak, hiru Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoari eta Goi Ikuskaritzari buruz elkarrekin lortu dugun akordioa iragartzeko duela gutxi egin dugun baterako agerraldiarengatik.

Gaur egun bizi dugun egoera ekonomiko zailaren ondorioz, komenigarria da zuhurtziaz eta adimenez jokatzea ongizate-sistemaren garapen berriei ekiterakoan. Hain zuzen ere, horrexegatik uste dugu gizarte-zerbitzuen garapena, eredu propioa izanik, une historiko honetako erronka estrategiko handia dela. Zereginaren garrantziak eskatzen du herrialde-itun handi bat sinatzea. Herrialde-itun handi bat guk lortu nahi ditugun gizarte-zerbitzu horien alde, kalitatezkoak, berritzaileak, komunitarioak eta iraunkorrak izango diren gizarte-zerbitzuen alde, alegia.

